

ONLINE IKASTAROA

KRISI KLIMATIKOA ETA GIZA ESKUBIDEAK: ERALDATZEKO HEZTEA

2025EKO AZAROAREN 3TIK ABENDUAREN 22RA

SARRERA

Krisi klimatikoa ez da ingurumen-larrialdia soilik: giza eskubideen, ekitatearen eta pertsonen duintasunaren aurkako mehatxu zuzena da.

Online ikastaro honek klima-aldaketa justizia sozialarekin lotzen duen ibilbide eraldatzailea proposatzen du, ikuspegi feminista, dekolonial eta interseksionaletik.

Krisi klimatikoa beren irakaskuntza-guneetan txertatu nahi duten hezitzaileentzat pentsatuta dago, ez soilik eduki gisa, baizik eta pentsamendu kritikoa, parte-hartze aktiboa eta giza eskubideekiko konpromisoa sustatzeko aukera gisa.

Krisi garaian heztea itxaropena sortzea ere badelako. Eta hezkuntza klimatikoa tresna indartsua izan daitekeelako komunitate erresilienteak, kontzienteak eta aldaketarekin konprometituak eraikitzeko.

EZAUGARRI OROKORRAK

- **Hasiera data:** 3.11.2025 (10:00)
- **Azken eguna:** 2025.12.22 (23:59)
- **Gutxi gorabeherako dedikazioa:** 30 ordu
- **Hizkuntza:** Gaztelania eta euskara
- **Kostua:** Doakoa
- **Modalitatea:** Gela birtuala
Material guztietarako sarbidea
ikastaroaren hasieratik.
- **Izen-ematea:** urriaren 28ra arte. [HEMEN](#)

HELBURUAK

- Ulertzea krisi klimatikoak nola eragiten dien giza eskubideei justizia sozial, feminista eta dekolonialaren ikuspegitik.
- Gogoeta egitea nola gurutzatzen diren generoa, identitatea, lurraldea eta desberdintasunak klima-testuinguruan.
- Klima hezkuntzak gizarte justuagoak eta erresilienteagoak eraikitzeko duen zeregina baloratzea.
- Ikasgelan pentsamendu kritikoa, parte-hartzea eta aktibismo klimatikoa sustatzeko tresnak eta metodologiak ezagutzea.

NORENTZAT

Hezkuntza-eremu formaleko eta ez-formaleko hezitzaileak

EDUKIAK

1. MODULUA. KRISI KLIMATIKOA: INGURUMEN-ARAZOA BAINO GEHIAGO

- 1.1 Zergatik da garrantzitsua prestakuntza hori?
- 1.2 Ez da ingurumen-arazoa bakarrik
- 1.3 Errealitatearen ikuspegi eraldatzailea
 - 1.3.1 Giza eskubideen ikuspegia krisi klimatikoan
 - 1.3.2 Giza Eskubideak eta Krisi Klimatikoa: beharrezko ikuspegia
 - 1.3.3 Ekintzarako deia: GJHak
- 1.4 Indar-ideiak
- Bibliografla

2. MODULUA. KRISI KLIMATIKOA ETA GIZA ESKUBIDEETAN DUEN ERAGINA

- 2.1 Krisi klimatikoa eta osasunerako giza eskubidea
- 2.2 Krisi klimatikoa eta uretarako giza eskubidea
- 2.3 Krisi klimatikoa eta elikatzeko giza eskubidea
- 2.4. Baliabide naturalak eta demokrazia: fokua energian
- 2.5 Indar-ideiak
- Bibliografla

3. MODULUA. KRISI KLIMATIKOAREN AURPEGIAK: ZAURGARRITASUNA ETA ERRESISTENTZIA

- 3.1. Emakumeak
- 3.2 Herri indigenak
- 3.3 Migrazio klimatikoak
- 3.4 LGTBQ+ biztanleak
- 3.5 Ingurumen-ekintzaileak
- 3.6 Indar-ideiak
- Bibliografia

4. MODULUA. HEZKUNTZA KLIMATIKOA KRISI KLIMATIKOARI AURRE EGITEKO

- 4.1 Zer da hezkuntza klimatikoa eta zergatik da gakoa?
- 4.2 Klima-hezkuntza inklusibo eta dekolonialerako estrategiak.
- 4.3 Klima-hezkuntzarako metodologiak eta tresnak
- 4.4 Ikasgelatik ekintzara
- 4.5 Indar-ideiak
- Bibliografia

IKASTEKO TRESNAK

- **Irakurketa-dokumentuak**
- **Baliabide osagarriak:** artikuluak, bideoak edo bestelako edukiak, gaian ikusitakoa osatzeko eta zabaltzeko balio digutenak
- **Aukerako autoebaluazio-testa,** zure ikaskuntzaren ebaluazioa ikus dezazun.
- **Foroa.** Ikastaroaren edukietan oinarrituta, gai interesgarriak eta hausnarketarako gaiak proposatuko ditugu, prestakuntza egiten ari diren beste pertsona batzuekin partekatzeke.
- **Irakasle** honek prozesu osoan lagunduko dizu eta ikastaroarekin zerikusia duen edozein gai kontsultatu ahal izango duzu.

ZIURTAGIRIA

Ziurtagiria emango zaie ikastaroa gainditu dutenei. Prestakuntza gainditzeko eta ziurtagiria jasotzeko, ikasleek honako hauek egin beharko dituzte:

- Foroan gutxienez behin parte hartu izana.
- Azken ariketa bat egitea.
- Prestakuntza ebaluatzeko azken inkesta betetzea, prestakuntzaren eragina ezagutzeko eta hobetzen jarraitzeko.

IRAKASLEA

Ikastaroko irakaslea **Nekane Viota Fernández** da, UN Etxeko iraunkortasun arduraduna eta genero erreferentea.

Nekane Biologian lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Ingurumen Kudeaketa eta Administrazioan masterra egin zuen Bioaniztasuna Fundazioan. Gaitasun Pedagogikoaren Ziurtagiria dauka.

Ingurumenari buruzko espezializazioa osatu du generoari eta feminismoei buruzko prestakuntzekin, 2030 Agendarekin, herritarren parte-hartzearekin eta iraunkortasunarekin, giza eskubideekin, lankidetzarekin eta garapenerako hezkuntzarekin. Lankidetzaproiektuetan lan egin du Guatemalan, eta, orduetik, **gizarte-eraldaketarako hezkuntzara bideratu du bere lana, batez ere iraunkortasunaren arloan.**

2009aren amaieran, UN Etxean sartu zen, eta, gaur egun, **Jasangarritasun Arloko arduraduna da, baita erakundeko genero-erreferentea ere.** Bertatik, gizarte-sentsibilizazioko eta prestakuntzako proiektu ugari, kanpainak, eragin politikoa, materialak eta argitalpenak gauzatzen eta koordinatzen ditu. Gai horiei buruzko prestakuntza ugaritako irakaslea ere izan da. Azken urteotan giza eskubideen arloan eta 2030 Agendan espezializatu da.